

Euskaltzaindiko karguak hautatzeko bilkura berezia

Eguneko aztergaietan agertzen zen bezala, 1996.eko azaroaren 29an, eguerdiko ordu batean bildu dira Bilbon Euskaltzaindiaren Plaza Barriko egoitzan P. Altuna, J.A. Arana Martija, M. Azkarate, P. Charriton, X. Diarce, P. Goenaga, J. Haritschelhar, A. Irigoien, X. Kintana, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J.M. Lekuona, B. Oihartzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, J.M. Satrustegi, L. Villasante eta P. Zabaleta euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzailea, erakundeko karguak aukeratzea helburu. Jarraikook euren egonezagatik ahala utzi dute beste euskaltzain batzuren, hots: I. Sarasola, P. Salabururen, J.L. Davantek, E. Larrerengan eta A. Zavalak, J.M. Lekuonarengan, Mahaiburuan, F. Krutwig, aintzinakotasunez euskaltzain zaharrena, eta, azkenik sarturikoa, idazkari gisa jarri dira, J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzailea laguntzaile izanik.

Hitz batzuk egiten ditu hasieran J. Haritschelhar jaunak. Zuzendaritzarako bere proposamena aurkeztu du, hots, burutzarako bera; buruordetzarako E. Knörr; idazkaritzarako P. Goenaga, eta diruzaintzarako, J.A. Arana Martija. Ondoren, bere esker ona agertu dio J.M. Lejonari, azken zazpi urteetan ederki bete baitu bere lana. Jarrai lezan nahiko lukeela esan du, baina Lekuona jaunak beste kargualdirik ez izateko gogoia adierazio zion aspaldi.

A. Irigoienek bere burua aurkeztu du kargu guztietarako, diruzaintzarako izan ezin.

Euskaltzainburu kargurako bozketa egin ondoren, emaitza hauek lortu dira: J. Haritschelhar jaunak 18 boto; A. Irigoien jaunak 2 boto; zuri, 4 boto. Ondorioz J. Haritschelhar gelditzen da izendaturik bi urterako.

Ondoren, euskaltzainburuorde kargurako bozketa egin da, honako emaitza hauekin: E. Knörr jaunak 16 boto; P. Goenaga jaunak 3 boto; A. Irigoien jaunak 2 boto; zuri, 3 boto. Beraz, E. Knörr hautagai jauna izendatu da urte birako.

Hirugarren bozketa idazkari kargurako egin da, ondorio hauekin: P. Goenaga jaunak 22 boto; A. Irigoien jaunak 2 boto. Hortaz, P. Goenaga gelditu da izendaturik.

Azken bozketa diruzaintzarako izan da, hortik atera diren emaitzak honako hauek izanik: J.A. Arana Martija jaunak 22 boto; zuri, 2 boto. Ondorioz, kandidatua kargu honetarako izendatu da bi urterako.

Bozketak egin eta gero, F. Krutwig jaunak euskaltzain bilduen aurrean emaitzak ofizialki aldakarrikatu eta hautatu ziorionak eman dizkie, bere karguan arrakasta opatuz.

Besterik gabe, bilera amaitu da.